

UDALAREN OSOKO BILKURA

Saioaren akta

Ohiko bilkura

Data: 2019ko irailaren 11, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2019ko urriaren 9ko onarpen-saioko aktan formulatutako oharrak jasotzen ditu.

Con formato: Inglés (Estados Unidos)

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzuurrungaza (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Gai-zerrenda

1. 2019ko ekainaren 15eko osaera-bilkuraren akta onartzea.
2. Ezohiko bilkuraren akta onartzea, AJAren 38. art., 2019ko uztailaren 8koa.
3. Alkatearen deketuak eta ebazpenak.
4. **Kultura, Turismo, Ospakizunak, Obrak eta Zerbitzuak eta Nekazaritza Batzordea.**
 - a. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, 2019ko abuztuko jaietako kostuaren argitalpen xehaturako.
5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
 - a. EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa Euskal Eskola Publikoaren plataformaren izenean.
6. **Gizarte Ongizate, Euskara eta Osasun Batzordea.**
7. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - a. 2018 ekitaldiko kontu orokorraren onarpena.
 - b. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, udal webgunean osoko bilkurak berriro emateko.
 - c. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, Herritarren Partaidetzarako Erregelamendua onartzeko.
8. Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

1. 2019ko ekainaren 15eko osaera-bilkuraren akta onartzea.

Alkate jaunak zinegotzietatik aktaren zirriborroari oharrak egiteko eskatu die.

Hau erabaki dute:

- 1) Onartzea 2019ko ekainaren 15eko osaera-bilkuraren akta, aurkeztutako zirriborroaren arabera.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José

Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

2. Ezohiko bilkuraren akta onartzea, AJAren 38. art., 2019ko uztailaren 8koa.

Alkate jaunak zinegotziei aktaren zirriborroari oharrak egiteko eskatu die.

Hau erabaki dute:

1) Ezohiko bilkuraren akta onartzea, AJAren 38. artikulua, 2019ko uztailaren 8koa, aurkeztutako zirriborroaren arabera.

Con formato: Español (España)

Con formato: Español (España)

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Con formato: Español (España)

3. Alkatearen dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuaren esanetan, alkateak aurreko ohiko saiotik emandako dekretuen eta ebazpenen berri eman du; 2019ko 99/1921 eta 215/19 bitartekoak dira.

- 99tik 108ra arteko ebazpenak 2019ko maiatzaren 24an amaitu zen agintaldi korporatiboko alkateak eman zituen.
- 109tik 126ra arteko ebazpenak jarduneko alkate jaunak eman zituen 2019ko maiatzaren 25etik ekainaren 14ra bitartean.
- 127tik 215era arteko ebazpenak 2019ko ekainaren 15eko bilkuran inbestitutako alkateak eman zituen. 127tik 215era arteko ebazpenetatik 168tik 175erakoak Conchi Villanuevak, lehen alkateordeak, eman zituen, legeriak onartzen dituen funtzio guztietan. 127tik eta 215era arteko ebazpenetatik 168tik 187rakoak María Jesús Mansilla Delgado idazkari gaituaren aurrean eman ziren. Gainontzeko ebazpenak idazkari nagusiaren aurrean eman ziren.

Con formato: Inglés (Estados Unidos)

Con formato: Inglés (Estados Unidos)

Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

4. Kultura, Turismo, Ospakizunak, Obrak eta Zerbitzuak eta Nekazaritza Batzordea.

4.1. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, 2019ko abuztuko jaietako kostuaren argitalpen xehaturako.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Uste dut denok dugula eskubidea duela gutxi ospatu diren jaietako kostuaren xehetasunak ezagutzeko. Ona da jendeak jakitea zenbat gastatzen den, eta jai-batzordea ere dinamizatu behar dugu.

Beloqui eta Gamarra jaunek ez dute ezer esan.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Gure taldea gardentasunaren aldekoa da eta gure botoa aldekoa da.

Alkate jauna: Iragartzen dizuet 115.000 euroko aurrekontuan gastuak laurogeita hamabost mila euro inguru izan daitezkeela, baina aurkeztu gabeko fakturak eta zenbatu gabeko gastuak daude. Udal honetan, duela urte batzuk, zinegotzi hileroko kontaketa-akten berri ematen zaie, errenta-erregistro orokorraren eta ordainketa-erregistro orokorraren kopiarekin ere. Zinegotzi guztiak udaletxean sortzen diren diru-sarrera eta gastu guztien jakitun dira. Eta hortik aurrera bakoitzak bere erantzukizuna hartzen du nahi duen informazioaren inguruan.

Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, 2019ko abuztuko jaietako kostua argitaratzekoa, bozkatu da.

Aldeko 3 (hiru) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Aurkako 4 (lau) boto; Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV); Abstentzioak: 4 (lau); Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Mozioa ez da onartu.

5. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

5.1. EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa Euskal Eskola Publikoaren plataformaren izenean.

Alkate jauna: Dakizuen bezala, lurraldeko ordezkariak eta Hezkuntza Sailburuordetzari plataformaren proposamenen bideragarritasun juridikoaren berri eman diegu eta horregatik, gure proposamena da gai-zerrendatik erretiratzea, aipatutako txostenak bertan sartu arte.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Inprimakiaren eskaerekin ados gaude eta ez nago gaia uztearen alde, nire iritzia eman eta gainerako taldeen iritzia entzun nahiko nuke.

Belouqui Unzurrunzaga jauna (PP): Guk geuk hitz egin baino lehen Hezkuntza departamentuko datuak jaso arte itxarongo dugu.

Gamarra López Brea jauna (PSE-EE PSOE): Komunikazioa egotearen alde gaude.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Alkateak gaia uztearen gainean galdetu du eta ez dit utzi mozioa irakurtzen ere. EH Bildu Oion taldeak igorle gisa jardun du plataformaren proposamena osatzeko. Plataformaren jarrerako puntu batzuek ere kirrinka egiten digute. Gure taldeak hezkuntzaren inguruan jarrera zehatza du eta Eusko Jaurlaritzaren informazioa iritsi arte gaia uztearen alde gaude. Baina gure txanda Oyón-Oiongo eskola-segregazioari buruzko gure hezkuntza-proposamena aurkezteko erabiliko dugu:

Egoeraren diagnostikoa eta helburu orokorrak

EAEko sare publiko eta itunpekoaren arteko desoreka gero eta handiagoa da atzerriko jatorriko ikasleen harrerari, indize sozioekonomiko baxuari edo hezkuntza premia bereziri, oro har, dagokienez, eta, zenbait arlotan, bereziki nabaritzen da. Egoera hori larriagotu egiten da Oyón-Oionen, irakasleen ezegonkortasuna dagoelako, dugun eremu geografikoa dela eta.

Udalbatzaren 2019 - IX - 11ko bilkuraren akta

Azken aldian gertatzen ari den eskola-segregazioaren fenomeno larriaz jabetu behar dugu eta gure eremuan eragiten duen fenomeno konplexua dela jakin behar dugu, fenomeno diagnostiko onak bistatik galdu gabe aztertu behar dugu, eta inguruko testuingurua eta idiosinkrasia eta jatorri eta ibilbide historikoak kontuan hartu.

Fenomeno honek eta bere konponbide posibleetara iristeko, Hezkuntza eta Gizarte Komunitate osoaren laguntza behar da, hezkuntza komunitateak berak zehaztutako ikuspegi publiko bakar eta osorako bidean, eta beste interes batzuk ezkutatzan dituzten eta konponbide posibleetatik urruntzen gaituzten liskarrak ekiditen.

Hezkuntza eskubide indibiduala eta kolektiboa da. Beraz, Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzura dagoen hezkuntza sistema burujabea garatzea da gure helburua, eta euskal herritartasunaren garapen integralerako balioko duena: doakoa, euskalduna, hezkidetzagilea, inklusiboa, parte-hartzailea, laikoa, herrikoa eta publikoa.

Era berean, hezkuntzak Euskal Herri kultu eta aktibo batean eratutako herritartasuna eraikitzeko balio behar du. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza-burujabetza osoa edukitzea, eta horren alde lan egin behar dugu.

Hezkuntza sistema bera segregazioak sustatzeko tresna izan daiteke edo, aitzitik, gizarte berdinzale, multikultural, solidario, euskaldun... bat eraikitzeko baliabidea izan daiteke.

Helburu hori lortzeko, ikastetxe bakoitza leku aktibo eta eraldatzaile bat dela uste dugu. Beraz, Oyón-Oionen gure helburua proiektu komun bakarrarekin "herri hezitzailea" eraikitzea da. Izan ere, horrek hurbileko hezkuntza, kalitatezkoa, plurala, inklusiboa eta parte-hartzailea bermatuko du.

Elementu segregatzaileei buruzko gogoeta beharrezkoa da:

- Kuota ezberdinak egoteak, doako eskakizunari dagokionez irizpide desberdinak erabiltzen dituen sistema bikoitza izateak baimentzen duena, oztopoak jartzen dizkie baliabide ekonomiko urriak dituzten biztanleei.
- Erlijio katolikoaren irakasgaiak eta zenbait ikastetxetan egiten diren jarduera kristauek eragina dute ikasleen sinesmenengatiko segregazioan. Erlijioak arlo pertsonalekoa izan behar du, ezin da diru publikoarekin finantzatutako elementu bereizgarria izan.
- Hizkuntza-ereduei dagokionez, euskal hizkuntzan murgiltzeko ereduak eskola-segregazioa ekiditen laguntzen du.
- Kooperatibista izateagatiko, ikastetxean ikasi duten anai-arrebak izateagatiko, bi gurasoak lan egiteagatiko eta antzeko baremazioak segregazioan eragiten duten elementuak dira.
- Alderdi demografikoei eta horiek eskola-segregazioarekin duten harremanari dagokionez, esan beharra dago, eremu berean, badaudela atzerriko jatorriko ikasleen kontzentrazio altuak dituzten ikastetxeak, eta indize sozioekonomiko txikia duten ikasle asko edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle asko dituzten ikastetxeak; eta beste zentro batzuen tasa horien ehunekoak oso txikiak dira, edo ia ez dira existitzen. Beraz, egoitza-segregazioa ez da faktore garrantzitsua eskola-segregazioa azaltzeko.
- Azkenik, batzuetan, berariazko informazioa/desbideratzea egiaztatzen da aniztasunik gabeko ikastetxe batzuetatik eta Hezkuntza Ordezkaritzatik ikastetxe batzuetara edo beste batzuetara ikasle motaren arabera. Batez ere, " zuzeneko matrikula irekia" delakoan.

Modu globalean jardun behar dugu. Ikastetxeekin lan egin behar dugu, taldearekin lan egiten dugun bitartean. Hezkuntzako eragileek eta instituzioek egoera elkarrekin jorratzea proposatzen dugu, herriko bi ikastetxeen inplikazio soziala beharko duen plan estrategikoa proposatzeko. Parte hartzen duten instituzioek (Eusko Jaurlaritzak eta Oyón-Oiongo Udalak) inolako zalantzarik gabeko konpromisoak hartu behar dituzte eskola-segregaziozko egoera hau lehengoratzeko.

Horretarako, honako ildo estrategikoak eta neurri zehatz hauek proposatzen ditugu.

Udalbatzaren 2019 - IX - 11ko bilkuraren akta

Con formato: Euskera

Con formato: Euskera

Ildo orokorrak eta neurriak

1. Eskola-segregazioa

Hezkuntza komunitatearekin eta huraosatzen duten gizarte eragileekin eta sindikatuekin lankidetzan, kasu bakoitzean dagokion erakunde eskudunarekin eta proposatzen diren neurriak gauzatu. Proposamen batzuk azpimarratzen ditugu:

1. Eskolatze bulegoa sortuko duen erakundearen arteko mahai bat eratzea, udalak eta Eusko Jaurlaritzak batera matrikulen (ohikoa nahiz zuzenekoak) kudeaketan aldaketak egin ditzaten. Horrela, Hezkuntza Administrazioak kontuan hartuko ditu ikastetxe publikoak zein itunpekoak, eta hurrengo urteetan zehar matrikularen jarraipena egin ahaldu. (ikus 1. eranskina: eskolatze bulegoak hartu beharreko neurriak).
2. Neurriak hartzea derrigorrezko hezkuntza doakoa izan dadin, bai ikastetxe publikoetan baita itunpekoetan ere. Hezkuntza ikuskapenak kontrol neurriak ezarri beharko ditu, eta hezkuntza komunitatearekin audiotortza argi, garden eta partekatuen bidez ziurtatuko du hezkuntza proiektu ezberdinak aurrera eramateko finantzaketa publikoaren erabilera eta beharra; gainera, bermatu beharko du inongo kuota motak ez duela eraginik izango ikasle baten hezkuntza proiektua alde batera uzteari dagokionez. Hezkuntza sailak hezkuntza ikuskapenaren bidez abian jarriko duen Jarraipen Batzordeak urtean bitan kontrolatuko du proposatutako neurrien betearazpena. Jarraipen horren emaitzak Erakunde arteko Mahaiari bidaliko zaizkio.
3. Proiektu global komunak sustatzea, eta beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea, ikastetxeetan metodologia berriak garatzea ahalbidetzea, horretarako beharrezkoak diren neurri eta elementu ekonomikoak ziurtatzea eta bi ikastetxeetako profesionalen eta familien arteko lankidetzak sustatzea elkarren arteko proiektu bat egiteko. Ikastetxeei eta familiei laguntza eman behar zaie esperientzia hau bizitzeko lagunduko duten bizikidetzak eta kulturartekotasuneko planak garatzeko. Udalak bi ikastetxeetako IGEen arteko koordinazioa sustatu beharko du eta jarduerak bateratuak bultzatu beharko ditu, hala nola hitzaldiak, guraso-eskolak, hezkuntza zerbitzuen kudeaketa partekatua, etab.
4. Irakasleen egonkortasuna ziurtatzea proiektuak aurrera eramane ahal izateko.
5. Udalak edo AFAk eskaintzen dituen jarduerak osagarri guztietarako doakotasuna.
6. Ikastetxe publikoan A eta B ereduak desagertzeko joera indartzea, D ereduak sustatzeko.

2. Herri hezitzailea

EH Bilduk uste du herri eta auzo hezitzaileak izan daitezkeela behetik gora lan egiteko formula. Horretarako, neurri hauek ezarri beharko lirateke:

1. Pertsonen, familien, ikastetxeen eta Udalaren arteko harreman-sareak sendotzea.
2. Udalak eta ikastetxeek eskaintzen dituzten zerbitzu guztien arteko koordinazioa sustatzea.
3. Proiektu integratu eta berritzaileen aldeko apustua egitea.
4. Zerbitzu publikoen murrizketa-politikei aurre egitea, hezkuntzak finantzaketa egokia izan dezan eta hezkuntzan erreferentzia diren herrialdeen mailan hartzeko, hau da, BPGaren % 6 baino gehiago.

3. Euskara

Euskarazko benetako murgiltze-eredua lortzeaz gain:

- Eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea/normalizatzea.
- Gazteen euskarazko produktzioa sortzen eta indartzen duten jarduerak sustatzea (lehiaketak eta erakusketak literaturaren, komikien, bertsoen, kantuen gaietan ...).
- Euskararen eta sentsibilizazioaren aldeko kanpainetan parte hartzea (Euskaraldia, Korrika...)

4. Haurreskola (0-3 tarte)

Etapan honetan, afektibitateak eta ama hizkuntzak garrantzi erabakigarria dute haurren garapen osoan. Beraz, afektibitatea, estimulazio orokorra eta hizkuntza aniztasuna zaindu eta ziurtatzeko baliabideak eskaini behar dira. Horrez gain, honako lan-ildo hauek ezarri behar dira:

1. Partzergoko haurreskolako eta itunpekoaren arteko matrikularen desoreka murrizteko neurriak sustatzea.
2. Dagoeneko lortu den arren dohaintza herritarren zati batentzako onargarria izatea (18.000 euro baino gutxiago errentak), doakotasun unibertsalerantz aurrera egin behar dugu.
3. Adingabeen hazkuntza eta hezkuntzarako beste proposamen batzuk sustatzea.

1. eranskina: Eskolatzeko bulegoak hartu beharreko neurriak

Aipatzen diren neurri horietako batzuk hezkuntzari buruzko hainbat legeriatan dagoeneko jasota daude, baina arazoa da ez direla betetzen. Beraz, matrikulazioarekin lotutako gauzatutako neurri guztiak Hezkuntza Sailari bidaliko zaizkio azaroaren erdialdean edo amaieran, izan ere, Departamentua eta hurrengo ikasturteko Eskola-Mapa eta matrikulazio-prozesua lantzen hasten den unea da, eta Hezkuntza Sailak aipatutakoen ezarpenaren berri emango du.

Con formato: Inglés (Estados Unidos)

Informazioa / Desbideratzea / Kanalizazioa

Funtsezko alderdi zuzentzailea iruditzen zaigu, egoera epe laburrean alderantzikatu ahal izateko. Horrez gain, eskola-segregazioaren aurkako borrokan, informazio politikak eskaria bideratzeko estrategiek modu estuan batera joan behar dira.

● Matrikulaziorako bulego bakarrak izan behar duen informazioa:

- Berandu sartuko diren ikasle kopuruaren aurreikuspenak, Hezkuntza Sailarekin eta Hezkuntza Ordezkaritzarekin komunikatuta.

Con formato: Euskera

- Familiek hezkuntza orokorrean dituzten lehentasunak ezagutzea, orain arte beren profil sozioekonomikoan oinarrituta eta eskolatzeko-prozesuan lurralde mugikortasun ereduaren oinarrituta.

Con formato: Euskera

- Ikastetxei buruzko informazio osatua: hezkuntza-proiektua, kostuak, irakasle-taldeak eta abar.

Con formato: Euskera

● Matrikulaziorako bulego bakarrak izan behar duen informazioa:

Eskolatzeko-prozesuari buruzko informazioa banatzea/ematea, batez ere, beren egoeragatik zailtasun handiagoak dituzten ikastetxeetan sartzeko prozedura ezagutzeko zailtasunak dituzten familiei.

Con formato: Euskera

● Eskaria bideratzea.

Con formato: Euskera

- Modu aktiboan esku hartzea, eta une oro eskola kontzentrazioa saihesteko abantailak buruz informatzea.

Con formato: Euskera

- Inguruko erdi-mailako eta goi-mailako familiekin modu positiboan lan egitea. Talde sozial horien eskaria erakartzeko politikak egitea, eskari gutxiago duten ikastetxetara sartu ahal izateko.

- Lan egitea, halaber, orain arte ikasle etorkinak jaso ez dituen ikastetxeekin.

- Kooperatibista izateagatik, ikastetxean ikasi duten anai-arrebak izateagatik, bi gurasok lan egiteagatik eta abarregatik baremazioak ezabatzea.

HPBak dituzten ikasleak hautematea

Komenigarria izango litzateke hezkuntza administrazioek aniztasun horri ongietorria emateko/aurreikusteko gai diren adierazleak izatea eta kontuan izatea ikasle talde horren banaketa orekatua antolatzeke. Horretarako, protokolo bat diseinatu beharko lukete Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak eta Hezkuntza Premia Espezifikokoak (HPE)¹ dituzten ikasleak hautemateko, eta ikasle horien beharretara egokitutako hezkuntza plangintza egiteko eta, horrela, zenbait ikastetxetan HPEak dituzten ikasleen kontzentrazioak ekiditeko.

Halaber, aurre-inskripzio eta matrikulazio-prozesuan familiei laguntza eman beharko zaie, egoera berean dauden familien taldeak biltzeko aukera egon beharko da, konponbideak adosteko eta neurri

konpentsatzaileak emateko etxetik edo lantokitik gertu ez dagoen ikastetxe batera joan behar duten familiei.

Oharra: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izaera fisiko, psikiko, kognitibo edo sensoriala duten maila eta mota desberdinetako gaitasun pertsonalak dituztenak dira. Behar espezifikoak dituzten ikasleak dira, beste edozein arrazoiengatik, desabantaila gainditzeko laguntzen duten aldi baterako ekintzak behar dituztenak (ikasturtean zehar eskolatzeko, ikastetxearen hizkuntza ez jakiteagatik...).

Zuzeneko matrikularen kudeaketa

Aipatu berri dugun gaiarekin lotura estua du ezinbestekoa den berandu sartu diren ikasleentzako lekuak erreserbatzeko politikak, eskolatzeko orekatua bermatzeko. Berezikiki garrantzitsua izango da "Zuzeneko matrikula" izeneko deialdian Eskolatzeko Batzordeak emandako informazioa.

- Epea igaro ondoren ikasleen matrikulazioa kudeatzen duen eskolatzeko-batzordeak IGEak eta sindikatuetakoa ordezkariak biltzea eta Eusko Legebiltzarrak 2009an onartutako legez besteko proposamena errespetatzea; izan ere, proposamen horrek ikasle iritsi berri baten eskolatzeari igaro behar ez diren ildoak zehazten ditu.
- Onarpen bermeen komisioen barruan lekuak erreserbatzeko akordio egonkorak eta iraunkorak ezartzea. Hitzarmen horiek hezkuntza ikuskapenaren bidez betearazi behar dira.
- Onarpen bermeen batzordeetan udalerriko ikastetxe publiko eta itunpeko guztien artean banaketa berantiarreko ikasleak banatzeko irizpide esplizituak aplikatzea.
- Dibertsitate kultural txikia duten ikasgelek ez dutela baimenduta izango ikasturtea hasiera ratioa gainditzeko; izan ere, horrela "blindatu" egiten dira haur berriaren sarreretara, eta haur horiek beste eskola batzuek hartu beharko dituzte. Ezarritako araudia hezkuntzako ikuskapenak betearazi behar du.
- Matrikulazio hori ez dadila bideratu dagoeneko beren ikasgeletan aniztasun handia duten ikastetxeetara bidaliz.
- Ikasturtea hasi ondoren egindako matrikula berriak zuzeneko matrikulatzaletan jotzea, eta ez irailaren 25etik aurrera, gaur egun egiten ari den moduan, eta ikasgela bakoitzeko gehienez bi ikasle berri izatea betetzea, hezkuntza administrazioaren arauak dioen moduan.

Eskola plazen antolamendua

Inklusio Eskolen Beharren Indizea (INEI) administrazioak berehala aplikatzea, diru publikoarekin finantzaturako ikastetxe guztietan.

Erabakitzea eskolatzeko orekatuan oinarritutako talde edo ildoak irekitzea. Printzipioz, jarraitu daitekeen irizpide bat honako hau izan daiteke:

- Talde edo lerro berri bat irekitzea ikastetxe segregatu batean, eskari potentziala gizarte-taldeena bada eta horrek heterogeneotasun sozial handiagoa ekarriko badu edo eskola orekatzeko beste mekanismo batzuk eskuragarri badaude.
- Segregatu gabeko ikastetxe batean talde edo ildo berri bat irekitzea, eskari potentziala gehien bat hezkuntza-arriskuan dagoen biztanleriarena bada eta udalerriak eskola orekatzeko ageriko mekanismoak ez baditu.
- Orain aplikatzeko: ez ematea ratio luzapenak eta ez irekitzea ikastetxe berririk gune bereko ikastetxe publikoetan lekuak dauden bitartean; eskola-segregazio tasa altuak dituzten ikastetxeetan ratioa murriztea.
- Bereizkeria-politika positiboak bereizitako ikastetxeetan Administrazioekin eta ikastetxeetako partaideei zuzendutako programa guztietan: IGEek kontratatutako monitoreentzako dirulaguntzak; laguntza jarduera osagarriak antolatzea; lehentasuna programa jakin batzuetan sartzerakoan (esaterako, barneetegiak, eskola antzerkiak, inguruko lekuetarako bisitak), etab.

- Segregazio-prozesu/-egoeratan murgildutako ikastetxe horietan konpentsazio-politikak: ratioak jaitea, irakasleen egonkortasuna, proiektu pedagogiko berritzaileak ezartzea indize sozioekonomiko eta kultural ertaineko eta ertain-altuko familiak erakartzeko ...

Ratioak

Ikasleen/ikasgelen ratioen kontrola udalen eta administrazio autonomoen eskura dagoen beste tresnetako bat da, ikasleen banaketa orekatua bermatzeko.

Kostuen konpentsazio-politikak

Ezartzea desabantaila duten ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak. Horien artean:

- 1.- Garraio, liburu, jantoki eta jarduera osagarrietarako beka sistema nahikoa ezartzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen da laguntzak ikasturte hasieran ordaintzea, familiek ordainketa egin ahal izateko; horrela, ordainketa geroratzeko egoera desberdinak ekiditeko, ikastetxe bakoitzaren irizpideen arabera.
- 2.- Formularen diseinua eta laguntza eskatzeko prozedurak sinplifikatzea, eta prozesu zailak ekiditea, maila kultural txikiagoko edo hizkuntza dela-eta ulermen zailtasunak dituzten familiak ez baztertzeko.

Alkate jauna: Ez dut ulertzen zergatik egokitu diguzun mitin hau, zuen jarrera gaia alde batera uztea bada.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Gure taldearen hezkuntzaren inguruko proposamena azaldu nahi dugu.

Aurrekariak:

- 1) EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Euskal Eskola Publikoaren plataformaren izenean.
- 2) Alkatetzaren proposamena da eguneko gai-zerrendatik kentzea EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Eskola Publikoaren plataformaren izenean.

Hau erabaki dute:

- 1) Gai-zerrendatik kentzea EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Eskola Publikoaren plataformaren izenean. Mozioa alde batera utziko da lurralde ordezkariari eta Hezkuntza Sailburuordetza eskatutako plataformen proposamenen bideragarritasun juridikoari buruzko informazioa lortu arte.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

6 Gizarte Ongizate, Euskara eta Osasun Batzordea.

7. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

7.1.2018 ekitaldiko Kontu Orokorraren onarpena.

Aurrekariak:

Udalbatzaren 2019 - IX - 11ko bilkuraren akta

1. Oyón-Oiongo Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak onetsi du 2018 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra, 2019ko maiatzaren 15eko saioan.
2. 2018. urteari dagokion kontu orokorraren espedientea jendaurrean jarri da hamabost eguneko epean, eta iragarki bat txertatu da udaleko iragarki-taulan eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialetako 2019ko maiatzaren 17ko 57. zenbakian. Erreferentzia alfanumerikoa: Ogas/CtagenTramit - 2018 ekitaldia.
3. Jendaurrean jartzeko epean ez da inolako erreklamaziorik, zuzenketarik edo oharrik egin.
4. Kontuen Batzorde Bereziak 2019ko irailaren 4an egindako hitzarmen proposamena.

Hau erabaki dute:

- 1) Onartzea 2018 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra.
- 2) Ondasunen inbentarioa zuzentzea, toki erakundeen ondasunen araudiaren 31. artikuluan xedatutakoa betez.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Abstentzioak: 5 (bost): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

7.2. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, udal webgunean osoko bilkurak berriro emateko.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Gure mozioak saioak bertaratu ezin direnengana hurbiltzea du helburu, langileak, seme-alabak dituzten amak, zer erabaki eta nola erabakitzen den jakin dezaten. Une horretan ezin badute joan, erraztu egiten da euren etxetatik osoko bilkura guztiak jarraitzea, inguruko beste udalerri batzuetan bezala, Batzar Nagusiez eta Eusko Legebiltzarraz gain.

Villanueva GutiérrezGutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Gardentasunarekin dugun konpromisoa berresten dut, baina hiru mila biztanle baino gehiagoko herri honetan gehienez hiru pertsona izaten dira saio bakoitzeko, ez dut uste oso beharrezkoa denik.

Alkate jauna: Ez dugu uste saioa grabatzea beharrezkoa denik. Baina, gainera, uste dugu mozio hau adarjotze bat dela, korporazio honen aurreko osoko bilkuran eta aho batez, bilkuretan grabaketa-sistema ezartzea onartu zen, bilkuretan zinegotzien hizketaldiak egiaztatzeko.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Zure iritzia da eta errespetatzen dut, baina zer ikusi du horrekin? Dena alda daiteke, aurreko osoko bilkuran gauza bat erabaki zen eta mozioa aurkez dezaket.

Alkate jauna: Guretzat Udala zerbait serioa da eta ez da serioa iritzia aldatzea saio batetik bestera.

Bozkatu da Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, udal webgunean osoko bilkurak berriro emateko.

Aldeko 3 (hiru) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Aurkako 4 (lau) boto; Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV); Abstentzioak: 4 (lau); Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Mozioa ez da onartu.

7.3. Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, Herritarren Partaidetzarako Erregelamendu bat onartzeko.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Ez dugu bozkatuko zuk ekarri duzun partaidetzarako araudiaren alde. EH Bildu Oion taldeak ere bere araudia du.

Alkate jauna: Mozio hau aurrekoaren berdina da, adarjotze hutsa. Zinegotzi ez atxikiak aurkeztutako araudia Tomín Ruiz zinegotzi ez atxikiak duela bost urte aurkeztutako testu berdina da, zuzendu ere ez dituzun akats berdinekin: Daniel Salvadorrek berpiztutako Tomín Ruizen araudiaren 6. artikulua erreferentzia egiten dio orain dela 3 urte indargabetu zen lege bati. 19. artikulua 9. artikulua ondoen errepikatzen da eta, ondoren, dagokion lekuan. Herri ekimenaren erreferentzia biztanleria handiko udalerri baten araudiaren kopia da. Berpiztutako araudiak ez du legeek jasotzen ez duten inolako bermerik eskaintzen eta gainera, ETELen 80.4 artikulua eta 7/85 Legeko 70bis 2a) artikulua hausten ditu.

Eta adarjotzea agerian are gehiago uzteko, 2014ko uztailaren 19ko saioko 12. puntua irakurriko dut: "Ruiz Llanos jn. (Herritarren Partaidetzarako Araudi baten mozioa defendatzen du). Egiaztatzen dut gainontzeko taldeak ez direla parte-hartzearen eta partaidetza araudi baten aldekoak. Horregatik, bozkatzea nahiko nuke.

Larrañaga Agüinado andrea (PESE-EE-PSOE): Zer nahi duzu bozkatzea, araudi bat idazteko mozioa edo araudia bera? Proposatzen duzun araudia aldatzeko aukera ere kontuan har dezakezu. Gure taldeak uste du herritarren partaidetzarako araudi bat egitea ez dela beharrezkoa...

Villanueva GutiérrezGutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Proposatutako testua korapilatsua da eta zenbait herritarrei udaletako paperetan sartzeko ematen zaien baimena dirudi. Eta aitortu behar dut saioetan alkate honek bizilagun guztiei hitz egiteko aukera eman diela...

Zeregin hau alderantziz egin da: lehenik, herritarrekin eta elkarteekin hitz egin behar da eta parte-hartzearen inguruko kexak ezagutu...

Villanueva Zubizarreta jauna (EAJ-PNV): Ez dugu ekimen hau ulertzen. Ematen duen inpresioa da protagonismoa bilatzen dela. Zirriborroa elkartei bidali zitzaion, baina ez dute erantzun. Zirriborroak udalerri honekin bat ez datozen hipotesiak biltzen ditu. Ez ditu oztopoak konpontzen, eta badaude, informazioa eskatzean agerian geratzen dira. Besterik gabe arautzen da, baina ez dago inongo bermerik. Ez da erabilgarria ez beharrezkoa.

Hervías Salinas jauna (PP): Ruiz Llanos jaunak emandako testua AJAren eta Administrazio Prozedura Legearen hainbat artikuluren elkarketa da, eta determinazio batzuek Toki Araubidearen Legea urratzen dute. Txalotzen dugu ekimena eta ahalegina, baina ez da beharrezkoa, eta berresten dut ezin dela araudi bat mozio baten bidez onartu. Eta neure buruari galdetzen diot: Zer zentzu dauka araudia berresteak, berriak biltzen ez dituen eta parte-hartzearen inguruko ezinegon bati erantzuten ez dion parte-hartzeari buruzko araudia birmoldatzeak?

Bozkatu da Daniel Salvadorren (zinegotzi ez atxikiaren) mozioa, Herriarren Partaidetzarako Erregelamendua onartzekoa.

Aldeko boto 1 (bat); Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Aurkako 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Mozioa ez da onartu.

Azken puntua) Eskerak eta galderak.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): 4 galdera egiten ditu.

1.a) Gure ondoeza adierazi nahi dugu, Oion Arenaren kudeaketa dela eta, Oyonesak hartutako erabaki batzuk direla eta, eta Academia Tiki Taka enpresari egindako lagapenak direla eta, tasen zenbatekoa eta bestelako gaien inguruan. Idatzizko dokumentu bat gehitu dut, hori bera erantzun dezazuen.

2.a) Irribarria kaleko urbanizazio lanetan, zoladura obretako lanaren kalitateak okerrera egin du. Lan horiek egitea adostu genuen oztopoak kentzeko eta uste dugu aparkalekua oztopo bat izan daitekeela.

3.a) Herriaren garbitasuna dela-eta kexa orokorra dago.

4.a) Ez dut ulertzen whatsapp-eko bozeramaileen taldea sortu izana, eta José Antonio Tarragona sartu izana eta Daniel Salvador, berriaz, ez.

Alkate jauna: Bozeramaileen batzordearen whatsapp taldea da, eta ez dut Daniel Salvador sartu ez delako inongo taldeko partaidea. Eta batzordean alkatea dago, baita EAJ-PNV taldeko bozeramaile ordezkaria ere.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

~~Oyón Oiongo Udala.~~

~~2020. urteko ordenantza fiskalak aldatzeko behin-behineko onarpen espedientearen aurkezpen publikoa.~~

~~Oyón Oiongo Udalak behin-behinean onartu du 2020. urterako hainbat ordenantza fiskalen aldatzea eta, gainera, onartu du gainerako ordenantza fiskalen iraunaldia luzatzea; ordenantza horien testua udal webgunean ikus daiteke.~~

~~Aldaketak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskaleko zerga tasari baino ez dio eragiten eta hiriko OHZren menpe dauden lur-balio berriak onestean motibatzen da.~~

~~Udalaren iragarki-taulan, udal webgunean eta ALHAOn adieraziko da jendaurreko epea hasiko dela eta 30 (hogeita hamar) eguneko izango dela. Jendaurreko epeak iraun bitartean, interesdunek fitxategia kontsultatu ahal izango dute eta nahi-adina erreklamazio aurkeztu ahal izango dituzte.~~

~~Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen akordioa behin betiko onartu dela
ulertuko da. Erreferentzia alfanumerikoa: Bo191030.~~

~~Oyón-Oionen, 2019ko urriaren 30ean.
Alkatea, Eduardo Terroba.~~

Oyón-Oionen, 2019ko irailaren 30ean.
Udaleko idazkaria:

OE Alkatea.